



2018ko abenduaren 15ean, larunbata, 19:00etan, Itsasoko Elizako korupean aurtengo 3. Herri Batzarra burutu da, honako aztergaiak izan dituelarik:

**1. Ekaineko batzarraz geroztik Udalak emandako pausoak**

Herri bideetan **Ariolakoa** hormigoitzen bukatu eta **Goitiko** bidean 150 m berritu dira.

**Zozabarroko** industrialdean farolak zuzendu eta itxitura konpondu dira.



**Hilerrian** zeramikaz eginiko sinbolo tradizionalak kokatu dira.

**Informazio panel berriak** diseinatu dira eta herriko zortzi gunetan kokatu: Itsasoko udaletxean, Alegian,

Zozabarron, Urteagan, San Lorentzon, Kizkitzan, Altzigarragan eta Mandubian.

Gaztelera- eta ingelesezko bertsiok QR kodeaz eskura daitezke.




**Oinezko 4 ibilbide** zehaztu dira eta paneletan jaso: Itsaso-Alegia-Itsaso zirkularra, Itsaso-Kizkitza-Mandubia-Urteaga- Itsaso zirkularra eta 2 joan-etorrikoak, lauak, inklusiboak (Alegia-Uribar eta Itsaso-S Lorentzo).

Auzolanean Itsaso-Alegia gehiena egokitzen amaitu da eta markatzen ere bai. Hurrengo auzolanean Kizkitzakoa markatuko da eta seinalitikak kokatu.

**San Lorentzo ingurua** orain bukatuko da. Alde batetik, Itsasoko iturburutik ura eraman eta iturria eta ganaduantzat aska egin eta, bestetik, bidean eserlekuak eta bertan mahaia ipini. Bidean ere graba botako da beharra dagoen guneean.

**2. Diru laguntza eskaerak:** Herrian garatu nahi ditugun proiektuak hainbat diru-laguntza deialdietara egokitzeko modua egiten dugu eta aurkeztu, udalerrian ditugun baliabide ekonomikoak indartzeko.



Honela bada, azken sei hilabete honetan lortu ditugun aparteko sarrerak hauexek izan dira:

- "Herri Bizitza" deialditik 3.000 € diru-laguntza (ikastaroak etab)
- Landaola 2018 deialditik 11.000 € (aurrekontua 17.000€) (ibilbide eta panel berriak)
- Gune publikoetan wifi-a jartzeko 15.000 € arte (%100 lagunduta)
- Tokiko (erretaularen zabalkunderako) diru-laguntza 3.800 € (aurrekontua 9.000€)
- Jarduera fisikorako diru-laguntza (ibilbide inklusiboak): Alegia-Uribar, Itsaso-S Lorentzo 5.100 € (Landaolara aurkeztutako proiektuari gehikuntzak eginda aurkeztu zen)

**3. Itsasoren egoera 2019ko hauteskundearen aurrean:** Foru Aldundian Imanol Lasa Diputatuarekin bilera azaroaren 12an izan genuen eta Itsasoren egoera juridikoa inskripzioari begira maiatzeko hauteskundeak bitartean argitzen ez bada, Itsasoko eta Ezkioko udalbatzen eskaera luzatzea erabaki zen, Itsasoko Udal batzorde Kudeatzaileak aurrera jarraitzeko aukera guztiak izan ditzan. Bi udalbatzek sinatutako eskaera bideratu da.

Bitartean Andaluziako hiru herri inskribatu dira (azaroaren 30ean), 5000 biztanle baino txikiagoak direnak eta horregatik politikoki gure prozesua ere bideratzen ahalegintzeko eskatzen zaio Aldundiari.

**4. 2018-2019 ikastaroak:**

IKASTAROAK	IRAUPENA	PARTE-HARTZE KOPURUA
ARIKETA PSIKO-SOZIALAK	Astero, urritik abendura esperimentalki. Hurrengo hiruhilabetetan jarraipena izango du	10-12 kide
EUSKARA	Astean bi egun, urritik ekainera	5 kide
PILATES	Astero bi talde, urritik ekainera 1-2 saio	17 kide
ZUNBA	Astero, urritik ekainera	5 kide
FRONTENIS	Astero, urritik ekainera	10 kide
KERAMIKA	Astero, urritik ekainera (hiruhilabeteka)	8 kide
KAKORRATZ	Astero, urritik abendura	9 kide
ENERGIA ARGITU TAILERRAK	Bi saio, ekainean eta abenduan	Bakoitzean 10 kide inguru



**SUKALDARITZA**

**Udaberrian egingo da**

**Euskaraldia ekimena**

Jarduerak:

- . Euskaraldiaren berri eman (aurreko Herri Batzarrean)
- . Euskaraldiaren aurkezpena eta izen-emate proposamena
- . Auzolana
- . Prestakuntza tailerra
- . Kantu-afaria
- . Ostatuko sarrerako apainketa
- . Amaierakoa



Parte-hartzea: 49k eman dute izena: 40 ahobizi + 9 belarriprest

Balorazioa: Oso modu positiboan baloratu da orokorrean: Itsaso lehenengo momentutik izena emanda egotea, Topagunearekin izandako informazio eta material zabalkundea, herritarren erantzuna jardueretan, ekimenean parte-hartzea, batzordearen lana...

**5. Zaborren birziklatzea hobetzeko pausoak:** Ekaineko Batzarrean luze landu genuen gai hau eta atera ziren proposamenen artean honako hauek abian jarriko dira urtarriletik aurrera. Horregatik oso garrantzitsua da etxe guztietatik Alegian urtarrilaren 11an, ostirala, 19:00etan deituko den bilerara ordezkariaren bat joatea. Bertan Sasieta Mankomunitateko ordezkariak eta Itsaso eta Gabiriako Udalekoak izango gara.


Aurreikusitako berrikuntzak:

- txartel berria etxe guztietarako
- Konpostagune komunitarioa Alegian
- Astean behin errefuxa irekitzen dela, txartelez soilik, bai Alegian bai Itsason.

**6. Beste ekimen batzuen aurreikuspena:**

- Itsaso guneko obra amaitzea: Leader 2018 deialditik 96.000 €ko diru-laguntza jasoko dugu. Guztira udaletxeko sarrera, kanpoalde, teilatua eta goiko ganbara eraberritzeko aurrekontua 323.000€ da. Aurten finantzatu denarekin eta 2018ko gerakinarekin eta lortu dugun diru-laguntzarekin aurrekontu osoa ordainduko dela aurreikusten da.
- Alegian
  - Bide berdea (desjabetze prozesuak gehienak burutu dira eta jarraian asfaltatzea letorke)





**ITSASOKO  
UDALA**  
(GIPUZKOA)

## **HERRI BATZARRA AKTA 18-12-15**

- Parkea osatu: helduentzat ariketa fisikoa egiteko elementuak, frontoiko sareak... (Alegiako bileran jasotakoak)
  - Oinezko irteera Alegiatik Ormaiztegi aldera hastera doa (Foru Aldundiak).
  - Bulebarizazio proiektua zehazten hasiko gara aurrekoak amaitzean.
- 
- Kizkitzan: barandilla, ibilbidea markatu (hurrengo auzolanean)

Amaitzeko, datorren urteko aurrekontuen arabera zein inbertsiok duten lehentasuna erabakitzeko HERRI BATZARRA lehen hiruhilabeteen deituko da, ohikoa den moduan.

Agur bero bat!

Itsason 2018ko abenduaren 18an,

UDAL BATZORDEA

